

EDAN ETA EDAN

Mikela Atxorena

Arrosa

Lehen basoa,
Besta egiteko gogoia;
Une batez sentitzen duzun hotza,
Zeruak jantzear du jantzi beltza.

Bigarren basoa,
Sagarnoa utzi, hartzen duzu garagardoa;
Begieta irria:
Etorri zaizu lagun berria.

Hirugarren basoa,
Laguna dantzatzera doa;
Harekin batera segituz musikaren erritmoa,
Haizeak mugiarazten duen bezala hostoa.

Bosgarren basoa,
Laugarren duzu jadanik ahantzia;
Azkartzen ari da bestan giroa,
Zergatik ez dasta whiskiaren beroa?

Seigarren basoa,
Berokia atera duzu: barnea duzu beroa;
Nonbait gordea da eguzkia,
Galdurik azken izpia.

Zazpigarren basoa,
Begirada galdua duzu, zer arraroa!
Ezkerretik eskuinera ibiltzen hasia,
Lasai ote daiteke itsasontzia?

Zortzigarren basoa,
Zailtzen ari da istorioa,
Bihurguneetan zara erortzen,
Lurrera ez joateko kasu egin arren.

Bederatzigarren basoa,
Nora doa zure soa?
Xoko batean gerizatu nahia,
Larruaren kolorea berde zuria.

Hamargarren basoa,
Galdua zara eta itoa,
Hordikeriaren ozeanoan,
Igeri egin ezinean.

Azken basoa,
Egoera jada kaotikoa:
Erraiak ia barnetik kanpora,
Hurrengoan edanen omen duzu ura,
Baina iragan azken bestan
Ideia bera gogartzen zenuen gogoan!